

KANBOKO HERRI BILTZARRAREN

2021eko irailaren 29ko

BILKURA AKTA LABURRA

Hor ziren: Christian Devèze auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino, ordeak, Véronique Cadepond-Larronde, Peio Etcheleku (19:55etik goiti), Corinne Othateguy, Jean-Paul Eyherachar, Nicole Amestoy, Isabelle Ayerbe, Jean-François Lacosta, Maud Gastigard, Roger Barbier, Carmen Gonzalez, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Jean-Paul Alaman, Lilian Hirigoyen, herri kontseilariak.

Ezin etorriak: Marie Aristizabal, Peio Etcheleku (19:55 arte), Jean-Jacques Lassus, Bernadette Remeau, Sébastien Carre, Nathalie Aïçaguerre, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, herri kontseilariak.

Ahalordeak: Marie Aristizabal-ek Yolande Huguenard-i, Jean-Jacques Lassus-ek Vincent Goytino-ri, Bernadette Remeau-k Véronique Cadepond-Larronde-ri, Sébastien Carre-k Christian Devèze-ri, Nathalie Aïçaguerre-k Argitxu Hiriart-Urruty-ri, Amaia Beyrie-k Philippe Bacardatz-i, Michel Duthilleul-ek Lilian Hirigoyen-i.

Saioa hasi aitzin, Auzapez jaunak *Unis pour Cambo* eta *Nahi Dugun Herria* zerrendetako kideak eskertu ditu, bere amaren heriotzaren kari adieraz dizkioten adiskidantza mezuengatik.

Saioko idazkariaren izendapena.

Biltzarkideek aho batez, Jean-Paul Eyherachar hautatu dute saioko idazkari izateko.

– Iragan bi biltzarren akten onarpena.

Iragan 2021eko uztailaren 5eko biltzarraren aktari buruzko oharrik ezean, akta bozketara eman eta aho batez onartua izan da.

Olha eihera bideko lurren eskuratzea: eremu publikora pasatzea eta sailkatzea.

Magis jaunak zehaztu du administrazio izapideen erregularizatzeko dela. Izan ere, duela zenbait urte, herriak bideei buruzko ekintzak bideratu zituen, bertako auzokoen onespenezekin Olha eiherako bidea zabaltzeko eta lur sail batean bidearen antolatzeke, THPan 38 zenbakipean erreserbatua dena.

Herriak lur sail horiek eskuratu dituela egiaztatzen duten notario agiriak ez dira eginak izan. Ondorioz, egoera erregularizatu behar dugu.

Herri Biltzarkideei eskatu die honakoak onartzea:

- Egoera horren zuzentzeko, lanen egiteko baliatu diren lurak euro sinbolikoaren truke eskuratzea, Daniel BELIN (30 m²) jaunaren eta COSSE - JOUANNY (148 m²) jaun andereen lur sailak izanik, orotara 178 m²koak
- Lur saila eremu publikora pasatzea.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

56- Baratze bideko lur sail baten eskuratzea: eremu publikora pasatzea eta sailkatzea - inkesta publikoaren abiatzea.

Magiz jaunak oroitarazi du lur saila Claudine BELLECAVE anderearena dela, Behereko Plazan kokatua eta zatiz erreserbatua izan dela bidearen zabaltzeko.

Herri Biltzarkideei eskatu die honakoak onartzea:

- Claudine BELLECAVE anderearen jabegoa den Baratze Bideko 88 m²ko lur saila eskuratzea, 7 000€ko obren truke harrizko hesi baten egiteko (1.30 m-koa) bidearen luzeran, eta xeilaren zutoinen ezartzeko.
- Inkesta publiko baten abiatzea lur saila eremu publikora pasatzeko.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

57 – SDEPA: Haurtzain auzoko argiteria publikoaren eraberritzea.

Magis jaunak zehaztu du lan horiek Haurtzain auzoan tentsio altu eta baxuko sarearen lurperatzeko ekintzaren baitakoak direla. Herriak SDEPA partzuergoari eskatu dio Haurtzain auzoan argiteria publikoa eraberritzeko lanetarako ikerketa egitea. SDEPAk Hazparneko COREBA enpresaren gain utzi du obren egitea. Lan eta gastuen zenbatekoak honelakoak dira:

Obraren zenbatekoa ZG	62 913,53 €
Obra agintaritza, obra kudeantza eta ezustekoak	6 291,35 €
SDEPAren kudeaketa gastuak	2 621,40 €
OROTARA	71 826,28 €

Ekintzaren finantzazio aurreikusia honelakoa da:

Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren parte hartzea	12 000,00 €
F.C.T.V.A	11 352,37 €
Herriaren parte hartze lanetan	45 852,51 €
Herriaren parte hartzea kudeaketa gastuetan	2 621,40 €
OROTARA	71 826,28 €

Herri Biltzarrari proposatu dio gorago zehaztu lanen zenbateko eta finantzamendu planari buruz erabakitzea.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua

58 – SDEPA: Haurtzain auzoko argiteria publikoaren eraberritzearekin loturik, Orange enpresaren ingeniartza zibila.

Magis jaunak adierazi du Herriak SDEPA partzuergoari galdegin diola Haurtzain auzoan argiteria publikoari loturiko Orange-n ingeniartza zibileko lanen ikerketa egitea. SDEPAk Hazparneko COREBA enpresaren gain utzi du obren egitea. Lan eta gastuen zenbatekoak honelakoak dira:

Obraren zenbatekoa ZG	105 555,60 €
Obra agintaritza, obra kudeantza eta ezustekoak	10 555,56 €
SDEPAren kudeaketa gastuak	4 398,15 €
OROTARA	120 509,31 €

Ekintzaren finantzazio aurreikusia honelakoa da:

Herriaren parte hartze lanetan	116 111,16 €
Herriaren parte hartzea kudeaketa gastuetan	4 398,15 €
OROTARA	120 509,31 €

Herri Biltzarrari proposatu dio gorago zehaztu lanen zenbateko eta finantzamendu planari buruz erabakitzea.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

59 – SDEPA: Haurtzain auzoko puxika fluoreszenteen ordeztzea

Magis jaunak adierazi du Herriak SDEPA partzuergoari galdegin diola Haurtzain auzoko puxika fluoreszenteak LED bonbilekin ordezteko lanen ikerketa egitea. SDEPAk Hazparneko COREBA enpresaren gain utzi du obren egitea. Lan eta gastuen zenbatekoak honelakoak dira:

Obraren zenbatekoa ZG	29 192,80 €
Obra agintaritza, obra kudeantza eta ezustekoak	2 919,28 €
SDEPAren kudeaketa gastuak	1 216,37 €
OROTARA	33 328,45 €

Ekintzaren finantzazio aurreikusia honelakoa da:

Partzuergoaren parte hartzea	8 000,00 €
F.C.T.V.A	5 267,67 €
Herriaren parte hartze lanetan	18 844,41 €
Herriaren parte hartzea kudeaketa gastuetan	1 216,37 €
OROTARA	33 328,45 €

Herri Biltzarrari proposatu dio gorago zehaztu lanen zenbateko eta finantzamendu planari buruz erabakitzea.

Bacardatz jaunak galdegin du ea lan horietan kandelabroen aldatzea egingen den.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak ihardetsi dio programa horrek bi ardatz dituela. Lehen a argien ordezteko, 500 €ko diru laguntzarekin unitate bakoitzeko, eta bestea argi eta kandelabroen ordezteko, 1 000 €ko laguntzarekin bakoitzeko. Programa horretarako bigarren opzioa aukeratu dute, hots argi eta kandelabroen ordezte osoa.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

60 – CAPAQUI erosketa publikoen zentrala: (AMPE) Akitaniako Merkatu Publikoen Elkarterako bazkidetza.

Auzapezak jakinarazi du herriak jadanik AMPEREkin lan egiten duela merkatu publikoen desmaterializazioarentzat. Elkarreak baliabideen bateratze eta ekonomia eraginkortasun urraspidea segitzea erabaki duten erosle publikoen arteko lankidetzaz garatzen du. Horretarako, erosketa publikoen zentrala eskaintzen die bere bazkideei.

Elkarre horren zerbitzuez baliatzeko, Herri Biltzarrari proposatu dio Auzapezari baimena ematea Kanbo elkarteko bazkide izan dadin, urtean 50 €ko kuota batekin.

Auzapezak gehitu du elkarteko kide izanez CAPAQUI erosketa publikoen zentralaren zerbitzueterako sarbide mugagabea izanen lukeela herriak 10 bat arlotan (informatika, erreproduktzioak, altzariak, apairuak, bide seinaleak...), jakinez herriak informatika eta telefoniarik ematen diela lehentasuna.

Alaman jaunak ohartarazi du gehienetan erosketa zentralen merkatu eredia eraginkorra dela arlo askotan. Prezio eta zerbitzuei dagokienez biziki interesgarriak dira herrientzat, baina bertako merkatuaren kaltetan izan ohi da. Beldur da ez ote den bertako merkatua baztertua izanen (adibidez Collectivité Service, bertako inprimategiak...).

Auzapezak errepikatu du Herriak zentralera joko duela telefonia eta informatika gaitentzat, eta zehaztu du orain arte bertako eskalan egiten diren erosketek hala segituko dutela, hala nola papera eta inprimategiak.

Auzapezak bozkara eman du.

Gehiengoz onartua.

Ez dute bozkatu: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul eta Lilian Hirigoyen.

61 – Pirinio Atlantikoetako Tokiko Sozietate Publikoaren (TSP/SPL) sortzea.

Auzapezak oroitarazten du kolektibitateak laguntzeko xedearekin, eta antolamendu nola eraikuntza alorretan erabakitzen laguntzeko elementuak eskura ditzaten, Pirinio Atlantikoetako Departamenduak horretarako sortu den Tokiko Sozietate Publikoan (TSP/SPL) parte hartzea proposatzen du. Kide diren kolektibitateei antolamendu eta eraikuntza proiektueterako ingeniarietza eskaintzeko xedea du. Eta hori kasik kudeaketa-egitura baten kasuan bezala egiten da merkatuen gauzatzeko (bereziki lanen aurreko ikerketak, programazioa, obra agintariari laguntza eginkizuna edo ekintzen kudeaketa ikerketa motakoak) deialdi publikorik egin behar izan gabe.

Auzapezak proposatzen du Herria TSPren kapitalean sartzea, 100€ko 5 ekintzentzat, hots 500€ orotara.

Arkitekto gisa Alaman jaunak proiektuaren dimentsioaz jabetua dela erran du eta kezkatua dela halako sozietateak departamenduan garatzen ikustearekin, bertako eragile zenbait baztertuak izan daitezkeelako.

Auzapezak ihardetsi dio Herriak horrelako zerbitzuak baliatuko dituela soilik beharra izaten badu eta arlo berezi eta seinalatu batzuetan.

Auzapezak bozkara eman du.

Gehiengoz onartua.

Ez dute bozkatu: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul eta Lilian Hirigoyen.

62 – San Laurendi elizako organoa: ad hoc batzorde baten osatzea

Auzapezak ohartarazi du biltzarkide guztiek proiektuaren historia zehazten duen azalpen ohar sintetikoa jaso dutela. Orain, obra agintariari dagokio estilo barrokoko organoa eraiki eta instalatzeko lanak eginen dituen organo egilea hautatzea. Obra agintariak herri biltzarkidez eta proiektuaren alorrean gaitasun eta ezagutza profesional eta/edo teknikoak dituzten pertsonen osatutako «ad hoc batzorde» baten laguntza izanen du. Batzordea aholkularia izanen da, eta kide bakoitzak bere iritzia ematen ahalko dio obra agintariari hartu behar duen erabakiaren hartzen laguntzeko.

Auzapezak zehaztu du ad hoc batzordearen osatzeko araurik ez dela existitzen, bereziki kideen hautatzeko, eta ondorioz honako zerrenda aurkeztu du:

- Christian DEVEZE, Kanboko auzapeza;
- Robert POULOU, Kultura gaietarako auzapez ordea;
- Batzorde teknikoaren osaketa:
 - Gilles MEDEVIELLE;
 - Thomas OSPITAL, organo jolea;
 - Esteban LANDART, organo jolea;
 - Isabelle JOLY, Ondare arkitektoa, eta lan horien obra kudeatzailea;
 - Aude CLARET, Akitania Berria eskualdeko Kultur Zuzendaritzaren izenean Kontserbatzaile gisa edo bere ordezkaria;
- Dominique GONAND, Kanboko San Laurendi Organoaren Lagunen Elkarteko Lehendakaria;
- Roger BARBIER, Kanboko San Laurendi Organoaren Lagunen Elkarteko kidea;
- Philippe VOUTE, parrokiaren ordezkaria.
- Isabelle AYERBE, herri biltzarkidea (eta organo jolea)
- Amaia GARAT eta Beñat GARAT organo joleak
- Mano CURUTCHARRY – Zaharkin eta Arte Objektuen kontserbatzailea (CDAOA)
- Honako herri biltzarkideak: Eliane AIZPURU, Jean Noel MAGIS, Jean-Paul EYHERACHAR, Bixente GOYTINO, Corinne OTHATCEGUY eta izendatu beharreko oposizioko kide bat.

Oposizioko kide gisa Alaman jaunak bere burua aurkeztu du batzorde horretarako.

Auzapezak Alaman jaunaren izendatzea bozkara eman du.

Aho batez onartua.

Auzapezak ad hoc batzordearen osaketa bozkara eman du.

Aho batez onartua.

63 – Arnagarako sartze prezioei buruzko emendakina.

Auzapezak oroitarazi du 2018ko azaroaren 26ko erabakiz, herri biltzarrak Arnagarako sartze prezioak finkatu zituela 2020ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31rako garaia rentzat. Arnaga bisitatu nahi dutenek txartelak on-line eros ditzakete. Arnagari egiten zaizkion sarrera ordainketen itzulera tratatzeko erabaki hura osatu behar da, itzulera baldintzatzen duten kasu bereziak zehazteko:

- Arnagak antolatu kultur ekitaldien bertan behera uztea edo gibelatzea,
- osasun arrazoiak,
- erreserba bakarrarentzako erreserba sistemak ordainketa bat baino gehiago egiten dituenean.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

64 - Hilobi eta columbariumen aurrekontu erantsiari buruzko 1. aldaketa erabakia

Aizpuru andereak biltzarkide guziei solasgaiekin batera igorri zitzaizen oharra irakurri du. Herri biltzarrari honako aldaketa erabakia proposatu die:

2 115 €ko kredituen transferitzea:

- 011 kapituluaren 2 115 € kenduz, 6052 artikuluan «material erostea, ekipamenduak eta obrak» eta kopuru berez (2 115 €) 67 kapitulua emendatzea, 673 artikuluan «titulu deuseztatuak (aitzineko kontu aldien gainean) ».

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

65 – Lur funtsen zergaz libratzea.

Auzapez jaunak oroitarazi du une honetan Frantziako Zergen Kode Orokorraren arabera etxebizitzarako eraikuntza berriak, berreraikuntzak eta handitzeak bizitegi zergatik libratzen direla obrak bukatu eta ondoko bi urteetan.

Dena den, herriek erabaki zezaketen libratze hori kentzea herriaren zatiarentzat, baina gure herriak ez du halakorik erabaki, jakinez departamenduaren partea lehen bi urteetan libratzen zela.

2021az geroztik, eta departamenduari dagokion lur funts eraikien zergaren partea herrira pasatu denetik, libratzea bertan behera gelditu da Frantziako 2020ko finantza legearen 16. artikulua ebatzen baitu libratzearen deuseztatzea ezin dela gehiago egin.

Zerga zerbitzuek herriari galdegiten diote zer egin asmo duen zerga horren bi urteko libratzearekin, zein izan ere etxebizitza mota, hots etxebizitza lagunduak nola laguntzarik gabe eskuratutako etxebizitzak.

Etxebizitza lagunduei dagokienez, zein izan ere erabakia, automatikoki bi urteko libratzea izanen da zerga oinarriaren %100ekoa. Ondorioz, etxebizitza horiek ez dute inolako zergarik izanen.

Alabaina, 2021eko urriaren 1a aitzin herriek erabaki dezakete, Frantziako Zerga Kode Orokorreko 1639 A bis artikulua arabera, beren partearentzat zerga libratzea zerga oinarriko %90etik %40ra jaitea. Neurria 2022ko urtarrilaren 1etik goiti aplikatuko zaie Frantziako eraikuntza eta etxebizitza kodeko L.301-1 eta L.301-6 artikuluen artekoek edo hitzarmenpeko maileguen araudiak finkatu etxebizitza lagunduentzat soilik.

Auzapezak eztabaida ireki eta proposamena errepikatu du:

- jabego eraikien lur funtsen zergaren libratzea etxebizitza guztientzat (lagunduak eta besteak), lanak bukatu eta ondoko bi urteetan, hots orain arte den bezala,
- bi urteko libratzearen mugatzea etxebizitza laguntzarik ez duten pertsonentzat.

Hiriart-Urruty andereak galdetu du zer diru eragin izanen duen herriarentzat.

Auzapezak ihardetsi dio libratzea %40koa balitz, hots zerga % 60koa balitz, herriak 18 000 € irabaziko lituzkeela, eta libratzea %50eko balitz 15 000 € irabaziko lituzke. Irabazi horiek urte batekoak dira eta 2021ko aurreikuspenen arabera kalkulatuak.

Alaman jaunak galdetu du zein den herriaren partearen ehunekoa lur funtsen zergan.

Auzapezak ihardetsi dio % 24,35koa dela.

Auzapezak bozkara eman du eta galdetu nor ados den jabego eraikien gaineko lur funtsen zergaren libratze maila orain arte bezala uzteko, lanak bukatu eta ondoko bi urteentzat.

Gehiengoz onartua.

Kontra bozkatu dute: Christian Devèze, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Vincent Goytino, Corinne Othateguy, Jean-Jacques Lassus, Roger Barbier, Carmen Gonzalez, Lilian Hirigoyen.

Beraz, diru laguntzarik ez duten etxebizitzek libratze maila osoa izanen dute jabego eraikien lur funtsen zergan.

Peio Etcheleku jauna gelan sartu da.

66 – Kontularitza nomenklaturaz aldatzea: M57-ra pasatzea

Aizpuru andereak biltzarkide guziei solasgaiekin batera igorri zitzaizen oharra irakurri du. Zehaztu du kontularitza nomenklatura berria kolektibitate guztiek bete beharko dutela 2024ko urtarrilaren 1ean. Halere, NOTRe deituriko 2015-991 frantses legeko 106.III artikulua aukera ematen die M14 instrukzioa aplikatzen duten kolektibitateei 2022ko urtarrilaren 1etik goiti M57 erreferentzialera pasatzeko.

Kanbo herriak aukera hori baliatu nahi du eta 2022an hasi, orokortze dataren beha egon gabe. M57 erreferentzial berriari esker, heldu den urtetik aurrekontu arau malguagoaz baliatzen ahalko gara, eta norma eta tresna berriek kontularitza informazioaren kalitatea hobetuko dute.

Herri biltzarrari proposatu dio kontularitza nomenklatura aldaketa onestea eta 2022ko urtarrilaren 1ean M57ra pasatzea onartzea.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

67 – Langileria: Kudeaketa Zentroaren behin-behineko misioen polorako harpidetza.

Auzapezak oroitarazi du Pirinio Atlantikoetako Lurralde Funtzio Publikoko Kudeaketa Zentroak kolektibitateek pairatzen dituzten langile eskasiei aterabideak atzemateko zerbitzua eskaintzen duela: behin behineko misioen zerbitzua. Kudeaketa zentroak administrazio izapide guztiak hartzeaz gain, langabeziarako eskubideak ere irekitzen ditu (ordezkapenaren bukaeran ordain sariak ordaintzen ditu). Zerbitzu horretarako bazkidetza urrik da eta engaiamendu gabea: emandako zerbitzu bakoitza fakturatzen dute.

Herri biltzarkideei proposatu die behin behineko misioen zerbitzurako bazkidetza onartzea 2021eko urriaren 1etik goiti, eta baimena eman diezaioten horretarako hitzarmenaren izenpetzeko.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

68 – Langileria: enplegu sortzea

Auzapezak oroitarazi du 2021eko azaroaren 1ean ama eskoletako ABLA (ATSEM) langile batek bere postua utziko duela eta data horretatik 2. mailako ABLA nagusi batentzako astean 25 oreneko lanpostua sortu behar dela.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

69 – Uholde Arriskuen Prebentzio Planari buruzko iritzia (UAPP/PPRi).

Amestoy andereak oroitarazi du UAPP uholde arriskuen kudeatzeko tresna dela, eta uholde arriskua duten eremuetan hirigintza kudeatzeko xedea duela, pertsonen eta ondasunen zaurgarritasuna mugatzeko. Zehaztu du 2016ko apirilaren 20ko Pirinio Atlantikoetako prefekturaren ordenantza batek Kanbo behartzen zuela UAPP baten egitera.

Gaur arte Lurralde eta Itsasoaren Departamendu Zuzendaritzarekin eta hautetsiekin egin elkarriketek uholde arriskuaren helburuei ihardesten dien dokumentu baten proiektua eman dute.

2021eko apirilaren 26tik maiatzaren 16ra egin den publikoarekiko hitzartzeak, zeinean UAPPren dokumentu nagusiak aurkeztu diren, ez die txosteneko dokumentu horiei aldaketarik ekarri.

Diaporama batez lagundurik, Amestoy andereak honako puntuak aurkeztu ditu:

- UAPP baten osatzeko urrats nagusiak
- arriskuen kudeaketaren lehentasunak,
- UAPPren helburuak,
- UAPPren eraginak,
- UAPPk kontuan hartzen dituen fenomenoak eta hipotesiak,
- geriza eraikuntzak,
- uholdeak eta mugikortasunak,
- arriskuen maparen osatzea,

- kontuan hartzen diren jokagaiak,
- arriskuak arauzko eremuztatzean txertatzeko printzipioak,
- arriskuen mapatik arauzko mapara pasatzearen printzipioa,
- arauzko eremuztatzea,
- UAPP txosten baten edukia

Bigarren diaporama baten bidez Magis jaunak UAPP eta HTP aurkeztu ditu. Izan ere, UAPP THPn txertatu behar da, eta 2014ko uholdea gertatu zenean herria THP osatzen ari zen. Arriskua ezaguturik THPn sartu dugu. Gainera, eremuztatze planoan trama bat agertzen da, araudian obrak debekatzen dituen eremu berezi bat, eta THPko eranskin gisa, erabilera publikoko planoak 2014ko uholde eremua zedarritzen du zenbait egokitzapenekin. Finean UAPPk eragin guti izanen du THPren gainean.

Magis jauna UAPPk hunkitzen dituen jardueraz aritu da:

Lehen egitura Termak dira, eta aurkeztu diren bi mapen arabera (UAPP eta THP) herriak arauak betetzen ditu. THPren araudia hurbiletik begiratzuz, hirigintza alorrean zerbait egin behar balitz, THPk uholdeez babesteko harresi baten egiteko baimena ematen du. Izan ere, UAPPko araudian eraikuntza eta antolamendu hidraulikoak onartzen dira, baldin eta ez badute arriskua okertzen. Halere, Frantziako uraren legeak finkatzen dituen deklarazio eta baimen prozedurak segitu behar dira. Ondorioz, THP eta UAPPk harresi edo diga baten egitea baimenduko lukete.

Digaren inguruan jadanik eztabaida anitz izan da, eta Hiriart-Urruty andereak ohartarazi du maiz errepikatu izan dela Errobiren ezker aldean diga eginez gero ezinbestean eskuinaldean ur gehiago izanen dela. Bere ustez LIDZ edo ingeniari batzuekin gogoetatu beharko litzateke, ikusteko zer aterabide atzeman daitekeen Errobiren ateratzeak saihesteko. Uholde kasuetan ez dira Termak bakarrik kaltetuak. Kanboarrek ere sufritzen dute, bereziki Behereko Plazakoek. Ohartarazi du Errobi ez dela gehiago zaindua: ez dela dragatzen, egur metatze anitz badela.

Errobiren kudeaketari dagokionez, Magis jaunak adierazi du LIDZak egur metatzeak identifikatzen dituela eta ondotik lanak programatu eta enpresa batzuei ematen diela lan horien egitekoa. Uraren kudeaketaren alorrean, lehen egiten zena, alegia erreka zolaren garbitzea edo dragatzea, den bezala atxikitzeak, debekatua da. Gaur egun ezinezkoa da milioika metro kubo ur bil ditzakeen egitura baten egitea. 2014ko uholdeei begira, hobe litzateke jendea bizi den lekuen babesteko neurriak haurtzea.

Hortaz, auzapezak ohartarazi du Errobi ez dela gehiago bere ibai-ibilgu naturalean. Bilkurak egin dira Suprefetarekin, baina deus ez da egiten ibai-ibilgua bere lekura itzultzeko eta horretarako beharrezkoak liratekeen lanen egiteko. Gaia behin eta berriz aipatu da bilkuretan.

Magis jaunak adierazi du GEMAPI eskumenarekin herriek ekintzak egiten ahalko dituztela Euskal Elkargoarekin menturaz Errobi bere ibilgu naturalera itzultzeko.

Auzapezak galdegin du nork zer eskumen duen.

Magis jaunak Errobi domeinu-ibaia dela ihardetsi dio, hots frantses estatuak duela mantenua eta egur metatzeen kentzeko eskumena eta ardura. GEMAPI-k (Ur Inguruneen Kudeaketa eta Uholdeen Prebentzioa) esku har lezake, Euskal Elkargoarekin adosturik, interes orokorraren izenean.

Auzapezak gehitu du GEMAPI zerga iaz bozkatu zela, baina aurtan soilik mobilizatuko dela. Zerga horren zuzkidura 4 eta 5 milioi ingurukoa izanen da baina zenbateko hori txikiegia izanen da dauden arazoei aurre egiteko obren egiteko, jakinez gainera Errobi ez dela horrelako arazoak dituen erreka edo ibai bakarra.

Magis jaunak zehaztu du ibai bazterreko biztanleek eremu publikoan esku hartzeko aukera dutela, frantses Estatuarekin hitzarmena eginez, baina halere lerrokatzeak zaindu beharko direla.

Auzapezak ohartarazi du Termetan egin daitekeen digak, zein izan ere eraikuntza mota, eta eskuetan dituen ikerketa teknikoen arabera, beste aldean uraren goratze mugatua izango lukeela, 2 cm gehiago.

Hiriart-Urruty andereak harridura handiz ez du ulertzen nola eman daitekeen halako zenbakirik.

Magis jaunak ihardetsi dio neurketa fotogrametrikoen emaitzak direla. Neurketa horiek modelo matematiko bat ematen dute, eta hori baliatuz 2014ko uholdea simulatu daiteke bariazioen ikusteko. Ikerketa bulego egiaztatuek erabiltzen dituzten simulazio eta modelo horiek maiz erakutsi dute eraginkorrak direla, eta ohartzen gara uholde horren erreproduktzioa errealtatearekin aski fidela dela.

Hiriart-Urruty anderea ez da batere ados eta UAPParekin bat etorriko litzatekeen diga proiektura itzuli nahi luke. Eskuin aldean zer egin asmo den galdetu du.

Magis jaunak ihardetsi dio Termek dutela diga proiektua eramaten. Ondorioz, Termei dagokie ikerketa lan baten eginaraztea, diga horrek izan ditzakeen ondorioen aztertzeko. Ikerketa hidraulikoa berriz egin dute eta ondorioen simulazioa egin da. Ondorio edo intzidentzia horiek aztertuko dira eta gaur egun txostena instrukzio fasean da.

Hiriart-Urruty anderea ohartu da herriko etxea proiektu horren alde dela.

Magis jaunak erantzun dio proiektu horren interes ekonomikoa kontuan izan behar dela.

Hiriart-Urruty andereak ulertzen du interes ekonomikoaren argudioa, baina argiki errana izan da beste uholde bat izango balitz Termak ez zirela onik aterako. Bere ustez beste aterabide bat atzeman behar da, profesionalei eta adituei galdegin.

Auzapezak Termen kasua gai nagusia dela, eta egia dela Termak ez zirela uholde batetik onik aterako baldin eta ez bazen deus egiten uholde horien kontra. Egia da ekonomia ez dela dena baina dena kontuan izan behar da. Frantses estatuko zerbitzuek, eta beraz profesionalek, aspaldian lantzen dute gaia. Argi da ez dutela zernahi egiten utziko Termen aldean beste aldean bizi diren jendeen kaltetzeko.

Magis jaunak bere aurkezpenarekin segitu du, bereziki Durruty enpresaren kasuarekin. Zehaztu du UAPPren eremu xurian eraikuntza lanak egiten ari direla, frantses estatuko zerbitzuekin adostasunean. Ondotik, Behereko Plazako eremu eraikien diapositiba bat erakutsi du, eta etxebizitzaren handitzeko baimenen ukateko bete beharreko baldintzak aurkeztu ditu. Bukatzeko, Magis jaunak UAPPk Herrian izanen dituen ondorioak aurkeztu ditu, eta bereziki egin beharreko izapide guztiak, sortu beharreko dokumentuak eta herritarrengana egin beharreko informazioak.

Herri Biltzarraren iritzia dagokionez, Magis jaunak Behereko Plazako latsagiaren eremuan lan egiteko nahia agertu du, errepide bazterrak harrizko pareta batekin antolatze gaur egun dauden altzairuzko segurtasun lerrakien orde, zeinek lekuaren kalitate arkitektonikoari kalte egiten dioten. Eskaera frantses estatuko zerbitzuei helaraziko zaio azter dezaten.

Hiriart-Urruty andereak ohartarazi du lan horiek helburu estetikoak baizik ez dutela.

Magis jaunak ondarea ere kontuan badela.

Barbier jaunak zehaztu du erreka horren zola landaretzaz eta lur metaz betea dela. Errekaren ibilgua bere egoerara itzuli behako litzateke.

Magis jaunak ihardetsi dio oharra egin diotela Euskal Elkargoari eta funtzionamendu hidraulikoa azaldu du. Lurra metatzen da, errekan gorago zabalgunea badelako eta zubi erromatarra heldzean hertsitzen denez hor metatzen da. Hala, hainbat lekutan ikus daitezke metatzeak, zeren beheko aldean erreken zabalera usu tipia goa baita. Fenomeno horren saihesteko, obra handia egin beharko litzateke luzera osoan zabalera bera mantentzeko, baina ezinezkoa da. Aterabide bat litzateke errekan gora biltegitratze urmaelak egitea, uraren jarioa erregulatze, hots jarioa erreken leku hertsienara egokitze. Herriak Euskal Elkargoari galdegin dio ikerketa egitea GEMAPIren baitan.

UAPP proiektuari dagokionez, Hiriart-Urruty andereak galdegin du prozeduraren zein urratsetan den orain herria.

Magis jaunak erantzun dio 4. fasean dela: azaroan egin beharko litzatekeen inkesta publikoaren aitzineko kontsulta eta iritzien bilketa. Inkesta publikoan komisarioak herritarren oharra hartuko ditu eta horien sintesia egingen du. Herritarrek hedabideen bidez izanen dute inkestaren berri (egunkariak) baita herriaren komunikazio kanalen bidez (afitxatzeak, webgunea, PanneauPocket...)

Hiriart-Urruty andereak iradoki du uholde arriskua duten auzoetakoak informatzea. Bestalde, herri biltzarkideei igorri zaien UAPP proiektuaren aurkezpen txostenean, jokagaien analisia atalean, herri proiektuei buruzko paragrafoa bada, bereziki antolamenduak izaten ahalko diren eremuei buruzkoa. Hiriart-Urruty andereak galdegin du ea eremu horiek identifikatuak diren.

Magis jaunak oraindik ezetz.

Ber dokumentuan, herri proiektuen atalean, lotura goxo, berdegune eta aparkalekuen antolamenduak aipatzen dira -Errobi bazterrean 3m zabaleko oinezko eta bizikletentzako bide baten sortzea- eta dolu zaio ez baita planorik aurkeztu bide horren kokapena ikusteko.

Magis jaunak erantzun dio zirga pasabide publikoari dagokiola zeinari 3m-ko zabalera bat gehituko zaion Uztaritzeko balizko lotura baten egiteko.

Etcheleku jaunak gehitu du 2008-2009 urteetan bizikleta bide baten proiektua abiatu zela. Gaur, egingarritasun ikerketaren finantzazioaren baitan, Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren deialdi bati erantzun zaio, zeinak Baiona - Baigorri ardatza ardatz egituratzailatzat jotzen duen bizikleta bideentzat. Errobi lurralde eremua, Euskal Elkargoaren bidez onartuak izan diren bi deialdietan aurkeztu da: lehena Errobi beheko zatian bizikleta bide baten egiteko (Arrangoitze-Uztaritze), eta beste zatia gaineko aldean. Joan den astean egin zen proiektu horren abiatzeko lehen bilkura. Egingarritasun ikerketak abiatuko dira ardatz nagusi horri buruz, zeinari herrietako bizikleta ibilbideak lotzen ahalko zaizkion. Beraz, urte andana pasako da jakin arte zein ardatz atxikiko duten eta noizbait luzatuko den jakiteko.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du ea posible denez UAPP proiektuaren mapa zehatzagoak ukatea.

Magis jaunak ihardetsi dio mapa prefekturaren webgunean deskargatzeko aukera izanen dela, azalpen ohar sintetikoan helarazi den estekaren bidez.

Auzapezak bozkara eman du.

Biltzarrak «aldeko iritzia» eman dio UAPP proiektuari, definitu dituen arrisku eremuekin, hots Termak eta Durruty enpresa Errobi inguruan, eta Beheko Plazako erreken antolamenduekin.

Kontra bozkatu dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Nathalie Aïçaguerre, Philippe Bacardatz, Amaia Beyrie.

Bozkan parte hartu ez dutenak: Lilian Hirigoyen eta Michel Duthilleul.

70 – Aturri behereko Uren Antolamendu eta Kudeaketa Eskema (UAKE/SAGE).

Magis jaunak oroitarazi du biltzarkide guztiek ukan dutela azalpen ohar sintetikoa zeinean Prefekturako webgunean txosten osoa deskargatzeko esteka agertzen zen, eta UAKERI buruzko diapositibak aurkeztu ditu.

Aturri Behereko Uren Antolamendu eta Kudeaketa Eskema deitu plangintza dokumentuaren helburuak dira ur baliabidearen balioztatzea eta geriza kualitatibo nola kuantitatiboa bermatzea. UAKERen eremua isuri arroaren eremu bera da, eta Kanbok zer ikusirik badu zati txiki batentzat, alegia gaineko bideko eskuinaldean, eta THPren arabera laborantza lurak dira.

Bi dokumentuk osatzen dute UAKE:

- Antolamendu eta Garapen Iraunkorreko Plangintza (AGIP/PAGD) zeina THPri inposatuko zaion behin onartu eta.
- AGIP osatzeko xedea duen araudia.

Aturri behereko eremuan uraren kudeaketaren inguruan diren jokagaiak honakoak dira: gobernantza, uraren kalitatea eta jardueren mantentzea, ur inguruneen kudeaketa, ur kantitatea, uholde arriskua, ur edangarriaren hornidura, saneamendu kolektiboa eta banakakoa, euri uren saneamendua, lurraldearen antolamendua, komunikazioa eta formakuntza. Gai guzti hauek AGIPan zehazten dira. Dokumentu horrek ekintzen egiteko beharmendua duten obra agintariak ere identifikatzen ditu.

Auzapezak zehaztu du UAKERen dokumentuan azken idazte lanak 2018an abiatu zirela. Hitzartze prozesu luze baten ondotik, batzordeak UAKE proiektua onetsi zuen 2020ko urtarrilaren 15ean, arauzko urratsen abiatzeko, hots partaideen deialdia eta inkesta publikoa. Helburua delarik UAKE Prefetari aurkeztea 2022 urte hasieran bere onespena eman dezan.

Auzapezak bozkara eman du.

Biltzarrak «aldeko iritzia» eman du gehiengoz.

Jean-François Lacosta jauna abstenitu da.

Azken bi puntuei dagokienez, Hiriart-Urruty andereak ohartarazi du hobe izan zitekeela dokumentu gotor horiek lehenagotik eskuratzea, arauzko 5 eguneko epea baino lehen, gaien hobeki lantzeko gisan

Auzapezak oharra kontuan hartu du.

71 – ToLFEP(EPFL): SCA Dieudonne eta konpainia sozietatearen ondasunen eskuratzeko esku hartzea.

Auzapezak txosten honen historia oroitarazi du. « Centre Beaulieu » deituriko lur sailen saltzea (bertan diren eraikinak ere) eta jabearen legezko likidazio Komisarioaren ordenantzak 2020ko urriaren 1ean baimendurik, salmenta Baionako Auzitegiko enkantean eginen zenean. Kanbo herriak eskaintza bat eginik, epaileak enkanteko salmenta deuseztatu zuen.

2021eko apirilaren 12ko erabakiz, herri biltzarrak Ipar Euskal Herriko ToLFEPen esku hartzea eskatu zuen herriaren izenean eros zitzan Beaulieu mediku zentroko lur sailak, gaur egun abandonatuak direnak.

2021eko maiatzaren 6ko erabakiz, ToLFEPeko Administrazio Kontseiluak herriaren eskaera onartu zuen eta lur sailen erosteko izapideak martxan ezarri zituen.

2021eko uztailaren 9ko erabakiz, ToLFEPeko Administrazio Kontseiluak "Beaulieu zentroaren" eremuko ondasunen erostea deliberatu zuen, Kanbo herriaren kontura, gastuz kanpoko 2 000 000 €ko zenbateko batean. Zenbatekoa bertan dauden ondasunen izaeraren arabera banatzen da. Bestalde, eskuhartze eremuan kokatzen diren BO 22 eta 23 sailei buruzko negoziazioak oraindik egitekoak dira eta gero erosi beharko dira. Behar izanez gero, ToLFEPak horien erosteko beste erabaki bat hartuko luke eta « Petit Franclet » deitu sektoreko kapitalari gehituko zaizkio.

Ekintza horrentzat hitzarmen bat egin behar dugu ToLFEParekin, herriaren kontu erostea, kudeaketa eta ondasunen eskuz aldatzearen baldintzak zehazteko. Ondasunen egituratzeari begira, 5 sektore zehaztu dira eta bakoitzak eskuhartze berezia izanen du:

- « Villa Lorraine » sektorea: 575 000 €
- « Centre Beaulieu » sektorea: 701 200 €
- « Petit Franclet » sektorea: 178 000 €
- « Haramburuya » sektorea: 295 000 €
- « Villa Bru » sektorea: 250 800 €

ToLFEParen eskuhartzea dela-eta, eraikiak diren ondasunei dagokien eskuhartzeak ezin du 12 urte baino gehiago iraun. Ondorioz, pentsatu dugu 12 urteko eskuhartzea egitea lehen lau sektoreentzat, eta F3 motako bi apartamentu dituen "Villa Bru" ordea ez da ToLFEParen eskuhartzearekin erosiko. Apartamentuetako bat okupatua da eta bigarrena larrialdi etxebizitza izatera bidera genezake. Herriarekin adosturik, ToLFEPak segidan herriari itzuliko dizkio bi apartamentu horiek. Esku hartze modalitateei dagokienez, urteka kalkulatuko dira %1eko eskuhartze gastu batekin, ordaintzeko gelditzen den kapitalaren gainean kalkulatua.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du noiz hasiko diren proiektuak.

Auzapezak ihardetsi dio Herria ez dela gehiago Halary eta besteren helegite mehatxupean, zeren Paueko dei auzitegiak 2021eko uztailaren 27an kontuan hartu baitu Halary eta bestek bertan behera utzi zutela ezarri zuten helegitea. Arrats honetako erabakiaren arabera, Auzapeza jadanik Guérin legezko likidatzailearekin harremanetan sartu da abisatzeko ToLFEPak zituela ondasun guztiak erosiko. Espero du salmenta laster izenpetuko dela.

Hiriart-Urruty andereak galdetu du zertan den biribilgunearen proiektua.

Auzapeza Halarytarrekin egon behar da sarbide arazoan aipatzeko, jakinez lur funtsen eskuratzearrekin, bereziki "Villa Lorraine"ekoak, biribilgunearen kokapena aldatzen ahalko dela.

Alaman jaunak galdegin du ea ToLFEPak eramanen duen ekintza horrentzat ez ote den ad hoc batzorde bat osatuko proiektuaz gogoetatzeko.

Auzapezak ihardetsi dio herri biltzarrean diren gaitasun guztiak baliatuko direla bereizketarik gabe, eta bozkara eman du.

Aho batez onartua.

72 – Dirulaguntza.

Huguenard andereak jakitera eman du herri biltzarrak erabakia hartu behar duela Gaineko Kanboko besta komitearen aldeko 2 500 €ko dirulaguntza bati buruz, bere jardueren berriz hastearentzat. Oroitarazi du 2020an 1 000 €ko dirulaguntza eman zitzaiola pandemiarengatik. 2021eko bestak 2 egunera murriztu ziren eta bestalde besta batzuk antolatu ahal izan dira. Iragan asteburuan Paskalekuko zikiroa izan da eta herriak bi faktura hartuko ditu bere gain (karpa eta baso berriak)

dirulaguntza eman artean. Dirulaguntza hori hemendik datorren udaberrira arte egingen diren animazioentzako litzateke 2022ko hasierako aurrekontua bozkatu artean.

Auzapezak zehaztu du 1 000€ko dirulaguntza funtzionamendu gastuentzat zela, eta pandemia agertu denetik eta ohikoa den bezala, herriak dirulaguntzen kopuruak egokitu ditzakeela antolatu ekintzek justifikatzen duten heinean. Besta komiteko lehendakariak Bakardatz jaunaren bitartez aurkeztu dituen beharren arabera, Auzapezak ohartarazi du Huguenard anderea prest dela halako arazoen argitzen laguntzeko eta besta komiteko lehendakariak zuzenki jo dezakeela beregana.

Bacardatz jaunak zehaztu nahi izan du animazioen batzordeko kide gisa luzatu duela informazioa, eta mail bat idatzi zuela xehetasunen ukateko baina ez duela arraposturik izan. Eskua hartu behar izan du besta komiteko lehendakariak zikiroa baino lau egun lehenago oraindik erantzunik ez zuelako.

Urte berezia dela eta, galdegin du sekulan besta komiteak ihauteriak antolatuko balitu eta horretarako dirulaguntza eskatu aurrekontu zehatz batekin (sartzeak eta gastuak) ea posible izanen denez erabaki baten hartzea animazioa gertatu baino lehen.

Huguenard andereak ihardetsi dio nahita ez diola bere e-mailari erantzun besta komiteko lehendakariarekin zuzeneko harremana izan baitzuen. Paskalekuko zikiroari dagokionez, besta komiteko lehendakariarekin hastapenetik izan diren harremanetan, adostua izan zen herriak zikiroa antolatzeko fakturak hartuko zituela eta informazio hori animazio batzordean zabaldu zen.

Bacardatz jaunak erran du animazio batzordeko kideei besta komitearekin izan diren trukaketen berri ematen ahal zaiela. Besta komiteko kide ohi bezala, deitoratzen du arrabesta baino astebete lehenago arraposturik ez izatea.

Hiriart-Urruty andereak besta komiteko gazteak zoriondu ditu, zeren pandemia eta diru oztopoen gainetik gauzak antolatu baitituzte. Halaber eskertu ditu elkarteetako boluntario guztiak, eta uste du herriaren zeregina dela horien zaintzea, entzutea, bereziki norbaitekin mintzatu nahi dutenean, eta gutxienekoa litzatekeela erantzun baten ematea. Eta kasu horretan ez da hala izan.

Auzapezak ihardetsi dio herriak eskaera bat eskuratzen duenean sistematikoki erantzuten duela, eta bozkara eman du.

Aho batez onartua.

– Auzapezaren erabakien komunikazioa.

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera, eta 2020ko ekainaren 11ko Herri Biltzarraren erabakia ikusirik, honakoen berri eman da:

- Hilerriko kontzesioen emateko eta berriz hartzeko erabakiak, 2021eko ekainaren 20tik irailaren 12ra:
 - 30 urteko kontzesioen erostea (+ hilobia): 2
 - 15 urterako kontzesio eraberritzea, lurrean: 1
- 2021eko uztailaren 9ko erabakia: kirol gelako kearen kanporatzeko sistema arauetara egokitzeko lanen esleipena SARL LANGILEAK enpresari, zergaz kanpoko 17 024 €ko zenbateko orokor batekin.

- 2021eko uztailaren 26ko erabakia: Arnagako etxazpiaren antolatzeko lanen esleipena – Edmond Rostand museoan airea tratatzeko zelulak dituzten bi museo-erreserben sortzea S.A.S.U enpresari– Klimatizazio mantenu proiektua – PMGC zergaz kanpoko 45 890 €ko zenbatekoarekin.
- 201eko agorrilaren 9ko erabakia: Bertako Gurutze Gorriarentzako elkarte lokal baten antolatzeko deialdiaren 5. atalaren esleipena Maitricube enpresari, zergaz kanpoko 19 150 €ko zenbateko batekin.

– Bestelako gaiak.

Aitzineko herri biltzarrean Alaman jaunak bi galdera egin zituen.

Lehena, Bernadette Jougleux aretoaren araudiari buruzkoa. Auzapezak jakinarazi du araudia eta prezioen taula gehiengoko hautetsien artean landu zirela, eta «animazio» batzordean aurkeztuko direla hurrengo herri biltzarrak erabakia hartu aitzin.

Ondare, hirigintza, auzo eta etheen artxiboen kontsultari dagokionez, Auzapezak erran du zailtasun handiak badirela dokumentu horien atzemateko, baita herrikoak ere.

Zerbitzu Teknikoen Zuzendariak zehaztu du AVAPari buruzko bilkuretan Axe & Site ikerketa bulegoak dokumentu funtsek gauza guti zutela erran zula, besteak beste herriaren eraikuntza eta bilakaerari buruzkoak. Artxibo zaharrena termalismoari loturikoak dira.

– Informazioak.

- Magis jaunak aurkeztu du Kanbo herriak ToLFEParekin azken hilabeteetan eraman duen lur funtsen politika. THPko lur eraikigarrien multzoaren gaineko lan bat eramana izan da ToLFEParekin, lehenik ikusteko zer sektoretan funtsen zaintza berezia egin behar den, eta bigarrenik bi edo bost urtetik gorako etxebizitza huts "egiturazkoen" identifikatzeko. Etxebizitzak honela ezaugarritu ditu:
 - ✓ Kanboko eremu zaharrenean, terrazen karrikatik elizako plazaraino: eraikin zaharkituak edo batere ez sanoak okupatuak dira. Herri gisa ekintza zuzenik ez, baina jabe guztienganako informazio ekintza bat, bereziki SARE (Système d'Accompagnement pour la Rénovation Energétique) programaren baitan egin daitezkeen arraberritze lanen gomendatzeko. Izan ere, Euskal Elkargoa ari da ekintza hori lurralde osoan garatzen. Informazioa emanen zaie jabeei, egiturazkoak deritzen etxebizitza horiek merkatura itzul daitezzen. Sektore horretan ondare, merkataritza eta zerbitzu publikoko balio handiko eraikinak ere identifikatu dira.
 - ✓ Beaulieu auzoa: Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseilua da ondare horren jabe (lur funts interesgarriak daude. Ideia litzateke salmentak izanen direnean herriak horren berri ukatea eskaintza baten egin ahal izateko).
 - ✓ Marienia sektorea: abiatua den ekintza.
 - ✓ Berhartia eta Inbidia sektoreak: AU eremuan sailkaturik, herria erosle bezala agertuko da saltzen direnean.
 - ✓ Argia sektorea: gaur egun okupatua ez den eraikina. Jabeak egingarritasun ikerketa bat eskatu dio enpresa bati. Helburua litzateke eraikin horretan medikuentzako edo erizain-laguntzaile eskolako ikasleentzako izatea.
 - ✓ Terrazen sektorea: aukerak eman ditzakeen lur sail eraikigarri bat identifikatu da.

- ✓ Nivaldia sektorea: herriak eskaintza bat egin du. Lehentasunez erosteko eskubidea baliatu du eta 570 000 €ko eskaintza egin. Herriak etxebizitza lagundu programa bat egin nahi luke, BRS (Bail Réel Solidaire/ Errenta Erreal Solidario) moduan. HSA egitura izendatu da proiektuaren eramateko. Herriarentzako eragiketa zuria da, zeren erosi bezain laster HSAr salduko baitio.
 - ✓ Nafarroa etorbideko sektorea (Grancher-en parean): eraikitze baimena eskatu dugu 60 etxebizitza egiteko. Auzapezak promotoreari insistitu dio %50 etxebizitza lagunduak izan daitezen. Ondorioz, %40 alokairuan izanen dira eta %10 laguntzen bidez erosteko (BRS).
 - ✓ Espainiako etorbideko sektorea: San Josepe parkearen kontra diren Labéguerie jaun-andereen lurak.
 - ✓ Elizaldia sektorea: Lurak herriko etxeak eta Toki-Eder establezimenduak erosi dituzte, zati bat bakoitzak.
 - ✓ Edmond Rostand bidexka: Assantza kulturgunearen gibelean, Tillac anderearen jabegoa, salgai izanen dena.
 - ✓ Eliza plazako sektorea: Fagalde anderearen jabegoa – eskuz aldatzeko intentzio aitortpena balizko erosle batekin hainbat etxebizitzaren egiteko. Herriak ez du etxebizitzentzako mugatu nahi, herri erdian kokatua baita, eta ondorioz merkataritza edo kultur programa batentzako aukera ederra litzateke, baita etxebizitzentzat ere. Helburua litzateke ekintza publikoa egitea. Herriak domeinuetako zerbitzuari ikerketa eskatu dio ondasunaren balorazioa egin dezan eta lekuaren bisita bat egitekoa da. Proiektuaren zailtasuna: Fagalde anderea gaur egun hor bizi da eta programa egin izanen denean eraikin berriak etxebizitza ukan nahiko luke.
 - ✓ Arditegiko karrika: Miral enpresaren jabegoko lur hauentzako herriak erosteko desira agertu dezake sekulan salduko balitz.
 - ✓ Menta sektorea: Chantecler - lur sail interesgarria, eraikinekin eta baratzearekin.
 - ✓ Usimendia sektorea: ekintza bidean da, eraikitze baimena eskuratua.
 - ✓ Kurutxaga sektorea: THPre arabera lur sailak eraikigarriak dira, ekipamendu publikoetatik hurbil, sektore horretan aisialdi jardura garatzeko ahalmenarekin.
 - ✓ Edmond-Rostand bidexka: Miral enpresaren egoitza soziala, zeinaren zati bat U eremuan den, helburu izanik lekuaren geriza ekintza egitea.
 - ✓ Hilerriko sektorea: bi eremu eraikigarri.
Puttuenborda Tillac anderearen ondarea, eta Urcuduya bezala zeina laborantza eremu babestuan den Arnagari esker, eta herriak eskaintza egin lezake eraikia den zatiarentzat.
Garat sendiarena den Antxuenborda, AU eremuan aurreikusia eta sekulan salduko balitz eskaintza baten egitekoa.
- Auzapezak jakitera eman du 2021eko irailaren 20ko gutun bidez, Pirinio Atlantikoetako prefetak herriari jakinarazi diola SRU frantses legeko 55 artikuluen arabera 2021eko diru hartzea deuseztatua izan dela, hots 2019 urteari dagokiona eta 100 427,04 €koa dena.
Izan ere, Antolamendu, Etxebizitza eta Naturaren Zuzendaritza Nagusiak (DGALN) arauak zehaztu ditu 2021eko uztailaren 29an, SRUko beharmenduak lehen aldiz 2020an izanen zituzten herriei dagokienez eta 2018-2019 urteentzako libratuko zirela erranez. Herri horiek hiru urtez 2020, 2021 eta 2022 libratuko dira diru hartze horretaz.
 - Saioa bukatzeko, Magis jaunak jakinarazi du bi bilkura publiko izanen direla urriaren 6an, Herriko Etxean, lehena Eskolen karrikako bizilagunentzat 18etan, eta bigarrena Makeako bidekoentzat 20etan, APGL-ek egin aitzin-proiektuaren aurkezteko, oharren biltzeko eta behar izanez gero proiektua egokitzeko. Biltzarkide guztiak gomitatuak dira bilkura horietara.

Auzapezak Herri Biltzarraren saioa 22:15ean hetsi du.